

Bidea, Ondarea eta Zientzia

JARDUEREN PROGRAMA
UZTAILA-IRAILA

2021

www.navarracaminopatrimoniociencia.es



Gobierno
de Navarra  Nafarroako
Gobernua



07.08 VIANA

19:30 Navarro Villoslada aretoa eta Vianan barnako bisitaldia.

Gaixotutako harria, Vianan barnako ibilaldia

M^a Dolores Sanzen hitzaldia

Vianako udaletxeko armarriko harriaren narriadurarekin lotutako kalteen analisi eta azterlanak aurkeztuko dira. Halaber, ondasunaren andeatzearen aurrerape-na kontrolatzeko aplikatutako neurriak azalduko dira. Saio teorikoa amaituta, bisitaldi presentziala egingo da armarría eta narriadura berdinak kaltetu duen Santa Maria parrokia-elizaren fatxada bisitatzeke.

07.22 PAMPLONA-IRUÑA

19:30 Iruñeko Planetarioko Tornamira aretoa.

Bide bat zeruan

Zeru saio berezia Esne Bideari eta Donejakue bideari buruz. Bidea, Ondarea eta Zientzia. Javier Armentiaketa eta Mónica Ruiz aurkeztuak.

07.29 PUENTE LA REINA-GARES

19:30 Vinculo Etxea, jarduera anitzeko gela.

**Heriotza Bidean,
Erdi Aroko erromesen analisi biomolekularrak**

Patxi Pérez Ramalloren hitzaldia

Donejakue bidearen jatorria eta penintsulako iparralde osoan zehar izan duen bilakaera ardatz hartzen dituen diziplinarreko proiektu baten emaitzak aurkeztuko dira, eta arreta berezia eskainiko zaie Nafarroako Foru Komunitatean aurkitutako gizabanakoei. Lortutako datuek Donejakueren fenomenoari lotutako gizarteak hobeto ezagutzea ahalbidetu dute, Erdi Aroko erromesen profila eta Donejakue bidearen inguruan sortutako biztanleria-mugimenduen eragina azpimarratuz.

07.31 AKERRETA (ESTERIBAR)

21:30 Transfigurazioaren parrokiaren zelaigunea.

Izarren bidea

Iruñeko Planetarioak eskainitako zeru-behaketa.

08.05 LOS ARCOS

19:30 Los Arcoseko kultur-etxea.

Artea eta Geometria Erdi Aroan

Emilio Quintanillaren hitzaldia

Artea eta geometria errealitatea aztertzeko eta irudikatzen bi modu osagarri dira. Oso interesgarria da artearen historiaren ikuspegitik irudi geometrikoen esanahia eta erabilera argitzea. Hitzaldiaren ardatzak Erdi Aroa, kosmosaren eta perfekzioaren irudikapena unibertso sakratu txikietan eta esanahiz betetako mikrokosmosak izango dira.

08.12 EUNATE (MURUZABAL)

20:00 – 24:00. Santa Maria eliza.

Monumentuen bidez Bidea berreskuratzea: Vianako Printzea Erakunde

José Luis Franchez Apecechearen hitzaldia

Nafarroako Donejakue bidearen arkitekturaren errepaso laburra, Donejakue bideko zenbait monumenturen zaharberitze-lan esanguratsuenen bitartez.

San Lorentzoren malkoen gaua

Pertseidak behatzea

Iruñeko planetarioak eta AstroNavarra talde astronomikoak zuzendutako aire zabaleko jarduera.

08.19 PAMPLONA-IRUÑA

19:30 Nafarroako Errege Artxibo Nagusia eta ingurumariak.

Donejakue Bidea kartografiaren bidez

Carmen Jusuéren hitzaldia

Erromes eta bidaiarien istorioak, batzuk ezagunak eta beste batzuk ez hainbeste, bidearen ikuspegi berezia utzi dигutenak. Kontakizun horien bidez, gaur egun harri-garri zaizkigun ibilbideak, hiriak, paisaiak eta tradizioak ezagut daitezke. Aipamen berezia merezi du Erdi Aroko munduaren irudikapenak. XI. eta XIV. mendeen artean marraztutako *mapamundi*-ek, izan ere, Santiago munduko toki handienetakotzat dute, Jerusalem eta Erromarekin batera. Gaur egun Donejakue bidea gisa ezagutzen duguna eraiki duten bidaiari-liburuak eta mapak ezagutzeko ibilbidea.

Zeruko kartografia, gaueko iluminazioa, neurketa-tresnak eta teknikak

Ibilaldi zientifikoa artxibotik Zaldi Zurira, Fernando Jáureguik eskainia.

08.21 ESTELLA-LIZARRA

20:00. Topagunea: San Martin plaza.

Unibertsoa eta Rua, Lizarran barnako ibilaldia

Lizarran barnako bisita gidatua, Iruñeko Planetarioko Javier Armentiak eta Muriako Roberto Cigandak eskainia.

22:00 Behaketa Los Llanosen

Ilargia, Jupiter eta Saturno

Iruñeko Planetarioak antolatutako jardura.

IRAILA

09.02 SANGÜESA-ZANGOZA

19:30 Vallesantoro jauregia.

Ekitaldi-aretoa eta lorategia.

Zangozako Santa Maria koloreanitza

Alicia Ancho Villanuevaren hitzaldia

Santa Mariako portadaren jatorrizko polikromia nolakoa zen eta Erdi Aroan pigmentuak sortzeko prozesuak ezagutzeko saio teorikoa. Jarraian, pigmentuak sortzeko materialen eta tekniken erabileraren erakustaldi praktikoa egingo da.

09.11 ANDELOS (MENDIGORRIA)

19:30 – 24:00. Hiri erromatarra eta gordailuaren gunea.

Azarnategirako bisita gidatua, 2 taldetan eta Guiartek gidatua.

Gaua bidean

Iruñeko Planetarioak gidatutako aire-zabaleko jardura.

09.16 PAMPLONA-IRUÑA

11:00 Iruñeko Planetarioa.

Ondare kulturala eta zientzia

Nafarroako Gobernuak Kultura Zuzendaritzak “Vía Láctea, Camino de Santiago, Patrimonio y Ciencia” trailerra aurkeztuko du *fulldome* formatuan (kupula osoa) planetarioentzat eta *screen flat* formatuan (pantaila laua 16/9) telebista eta sare sozialetarako.

ESNE BIDEA proiektuaren parte izango da Iruñeko Planetarioan saio guztietan proiektatuko den aurrerakin gisa. Paisaien, natura- eta giza ondarearen, artearen eta historiaren esentzia jasoko ditu, baita astronomiari esker unibertsoan dugun tokiari buruzko jakintza ere, non Bidea ondare kulturala eta zientzia batzen dituen ardatza den.



Gobierno de Navarra  Nafarroako Gobernua



www.navarracaminopatrimoniociencia.es